ASTEKARIA | 2017ko urtarrilaren 13an | XX. urtea | USURBIL | 683. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua

Herritzartu taldea hasi da sinadurak batzen

Eguberriak, irudita

Igande honetan munduko janarien inguruko Tipi Tapa




# Usurbil 0.0

## Herrian sortutakoa, herrian bertan tratatu eta berrerabiltzeko ekimena


URDAiRA
Sagardotegia
Urtarrilaren 14an, LARUNBATA
IREKITZEN DUGU!!!
astelehenak itxita
URDAiRA
Sagardo Naturala
Sidra Natural
Aginaga 943 37 26 91


FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, USURBIL
OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).
MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA
943 36 21 63 (24 orduz)
·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
www.funerariagonzalez.es


ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
2 etxebizitza gelditzen dira!
AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!
12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpin
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Lorategidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com

## Albistea iruditan

# Herritzarturen sinadura bilketa

Maiatzaren 7an erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketa izango dugu Usurbilen. Galdeketara begira, eguberrien aurretik, ekimena kudeatuko duen Herritzartu elkartea aurkeztu zuten jendaurrean, baita manifestua ere. Manifesturako sinadurak eta selfie-ak biltzen ere aritu dira asteotan. Eta hilabete honetan zehar ere herritarren atxikimenduak jasotzen jarraituko dute, asteburuetan Sutegi atarian jarriko duten mahaian. Selfie-ak, 634445512 telefono zenbakira helarazi ditzakezue.

Antolaketa lanetan lagundu nahi dutenentzat, taldea ostegun arratsaldero biltzen da 18:30ean Potxoenean. Bideotatik ere haiekin harremanetan jar zaitezkete:

- Facebook: Gure Esku Dago Usurbil
- Twitter: @GureEskuDagoU
- usurbilgureeskudago@gmail.com




**Hilabete honetan zehar ere herritarren atxikimenduak jasotzen jarraituko dute, asteburuetan Sutegi atarian jarriko duten mahaian.**

## Laburrean

### Kantu Taldekoen ikasturte berria martxan

Ikastaro berria, gidari berria; Jaione Eskuderorekin egingo dituzte eskolak orain. Asteartero bilduko dira entseatzeko, 18:30-19:30 artean Udarregi Ikastolako kantu gelan. 2017ko lehen kantu-jira urtarrilaren 28an egingo dute: arratsaldeko 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

### Euskaltegian izena emateko aukera, zabalik

Maila guztietako ikastaroak egiteko aukera dago goiz nahiz arratsaldez, autoikaskuntza, euskara online ikasteko aukera, Mintzalagun egitasmoa,… Argibide gehiago jaso eta matrikulatzeko bideak hemen dituzue: egoitzan (Kale Nagusia, 43) edota telefonoz: 607 609 379.

### Ugartondoko Barne Erreformarako Plan Berezia

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 eremuko, Ugartondoko aipatu plan honen aldaketa behin betiko onartzea erabaki zuen udalbatzak gehiengo osoz abenduaren 20ko osoko bilkuran, EHBilduren aldeko bozkekin. PSE eta EAJ abstenitu ziren.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



**Imanol Ubeda**

# Hogeita batgarrenari ekiteko prest

Akabo. 2016 urteari agur esatearekin batera, amaitu dira NOAUA! Kultur Elkartearen urteurren ospakizunak. Aldizkaria sustengatzen duen elkarteak bi hamarkada bete zituen iaz. Aldizkari hau plazaratzeaz gain, beste hamaika kontu bideratzen ditu: kultur ekitaldiak, aisialdiari loturiko jarduerak, bestelako argitalpenak, azokak... Eta komunikazio arloan, 1996tik hona bikoiztu egin da NOAUA!ren apostua: astekaria eta web orria dira usurbildarren zerbitzura ipiniak dituen bi hedabideak.

20. urteurrena aitzakia ederra izan da aldizkari hau abiatu zutenen ahalegina aitortzeko. 1996ko sustatzaile haiei esker, NOAUA!k usurbildarrekin hartu zuen konpromisoari eutsi dio, etenik gabe. Iazko azaroan aurkeztu genuen #Noauak20 ikusentzunezkoarekin horixe azaleratu nahi izan genuen. Luis Jambrinak zuzenduriko ikusentzunezkoak, bide batez, orainaz eta geroaz hausnartzeko aukera eman zigun. Ideia interesgarri batzuk aletu ziren, ondo gogoan izan beharko ditugunak aurrerantzean. Bazkideen ekarpena zein funtsezkoa den azaltzeko ere baliogarri izan zen #Noauak20 (bideoa ikusgai duzue gure youtube kanalean zein noaua.eus web orrian). Urteroko kuota ordainduz, elkartearen biziraupena bermatzen duten bazkideak goraipatzeko abagunea aprobetxatu zuten Andoni Sagarnak eta Idoia Torregaraik. Inoiz ez da berandu. Zuk ere 2017ari asmo onez ekin nahi badiozu, NOAUA!ko bazkidetza egiteko aukera ederra duzu (esana gera bedi). Orain arte bezain funtsezkoa izango baita. Beste 20 urte bete behar baditugu, instituzioen laguntza eta publizitate bezeroen ekarpenarekin ez baita nahikoa izango.

#Noauak20 ikusentzunezkoa ez zen erredakzioko lan-taldetik sustatu genuen egitasmo bakarra izan. Joseba Larratxeren tira-komikoak eta Ion Markelen argazkiak irakurle askoren gozagarri izan ziren 2016an, eta bi atalek aire berri bat eman zioten aldizkariari.

Umorea ekarri zuen Larratxek, eta irudien indarra Ion Markelek. Lerro hauen bitartez, gure eskerrak eman nahi dizkiegu biei. Aldizkariari ukitu berri bat eman ziotelako. Nahiko genuke urte berrian ere euren lana gure egitea. Baina Joseba Larratxeren kasuan, ezinezkoa izango da. Lan ugari ditu 2017rako eta tarterik ez NOAUAren tira osatzeko. Poztekoa batetik, sormenerako hain zaila den garai honetan komikilari bat lanez gainezka ikustea. Baina lastima handia bestetik, gure irakurle asko 'umezurtz' sentituko direlako.

Ion Markelekin ordea, izango dugu aurrerantzean lan egiteko aukerarik edo modurik. Horretan gabiltza. Ea bere begiradaz gozatzeko aukera suertatzen den laster batean.

**Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Garazi Lizaso Manterola

## Ika-Mika

# Usurbil 0.0. Itxaropenari bidea irekitzen

Abenduan, Usurbilgo udalak Zero Zabor norabidean urrats berriak egitea erabaki duela jakinarazi du. Duela 8 urte, hondakinen kudeaketa jasangarri baterako bidean mugarri bat jarri zuen Usurbilek. Orduko hartan, gaikako bilketan eragitea zen xede nagusia. Ia hondakin guztiak nahasi eta zabor bihurtzetik, material gehienak gaika berreskuratu eta baliabide bilakatzea posible zela erakustera igaro zen Usurbil; atez atekoarekin Euskal Herriko lehen bilketa eraginkorra abian jarriz. Orduan belar txiki ñimiño bat besterik ez zirudiena, zuhaitz eder batean bilakatzen ari da begien bistara. Urterik urte, gaikako bilketak gora egin du nabarmen geroz eta herri gehiagotan, eta, hurrengo urteetan ere, hedapen horrek segituko duela aurreikus daiteke.

Hondakinen kudeaketa ez da bilketara mugatzen. Materialen ekonomiaren ziklo osoa barne biltzen du eta fase guztietan eragin beharra dago: Diseinua, ekoizpena, banaketa, kontsumoa, bilketa, tratamendua... Udalaren eskumenei eta gaitasun ekonomikoari dagokionez, bilketa da gehien eragin daitekeen fasea, baina prebentzioan, eta, batez ere, tratamenduan, zeregin handia dauka. Usurbil 0.0 egitasmoarekin haiei begira jarri, eta, hor ere, Zero Zabor bidean urrats eredugarriak egiteko erronka jarri dio Usurbilek bere buruari.

Gauza jakina da erraustegia etxe ondoan edukitzeak eragiten duen kezka. Zenbaitentzat ezinbestean onartu beharreko kaltea da; gehienontzat ekidin daitekeen akatsa. Une honetan, kezkatzen gaituen mamutzar horri aurre egiteko erarik onena, duela 8 urte bezala, Zero Zabor bidean sakontzea da, gauzak modu jasangarri eta osasungarriago batean egin daitezkeela erakutsiz bidea irekitzea.

Usurbil, Euskal Herrian zein nazioartean, erreferente bihurtu da gaikako bilketan. Urrats berri honekin, prebentzioaren eta errefusaren tratamendu jasangarrirantz joateko haziak ereingo dira. Guztion ahaleginarekin ernatuko diren belar ñimiño horietatik Zero Zabor basoa sortzen ikustea lortuko dugu.

**Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartea.**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urtarrilak 20. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 16.

# Bilboko manifestaziora autobusez joateko aukera

E*uskal Presoak Euskal Herrira! Giza Eskubideak, Konponbidea, Bakea!* aldarripean, manifestazioa egingo da larunbat honetan Bilbon. Sare mugimenduak deitu du, urtarrilaren 14rako, eta arratsaldeko 17:30ean abiatuko da Bilboko Kasillatik. Usurbildik autobusak antolatu dituzte.

Mobilizazio honetara joateko autobus zerbitzua antolatu da Usurbildik. Bi, zehazki esanda. Aurrez eman beharko da izena, ohiko tabernetan.

■ Goizekoa, 11:00etan aterako da Oiardo Kiroldegitik. Izena emateko: Aitzaga elkartean eta Aitzaga tabernan.

■ Arratsaldekoa, 15:30ean Oiardo Kiroldegitik. Izena emateko: Aitzaga, Bordatxo, Txiriboga eta Zendoia tabernetan.




**Sare-k antolatu duen manifestaziora joateko bi zerbitzu antolatu dira: lehena goizeko 11:00etan aterako da; bigarrena, 15:30ean.**

## Sortu birfundatzeko azken batzarra

Urtarrilaren 21eko Kongresuaren aurretik, birfundazio prozesuko azken batzarra egingo du Usurbilgo Sortuk. Urtarrilaren 7an izango zela iragarri genizuen arren, hilaren 18an 19:00etan Potxoenean izango da azkenean. Emendakinen eztabaida eta zerrenda irekien hautaketa bideratuko dute saio horretan.

■ Urtarrilak 18 asteazkena.

■ 19:00etan, Potxoenean.

## Zubietako energia planaren aurkezpena

Bertan sortutako energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko zer aukera dauden aztertzera doaz Zubietan. Horretarako energia plan bat jorratu nahi da zubietarrekin. Urtarrilaren 18an aurkeztuko zaizkie xehetasunak herritarrei, arratsaldeko 19:00etan Kaxkapen deitu duten ekitaldian. Hitzorduan parte hartuko dute Zubietako Herri Batzarreko ordezkariek, baita plan hau guztia bideratzeko kontratatu duten aholkulari teknikoak, Xabier Estebanek ere. Planaren nondik norakoak azalduko dituzte; tartean lehen fasean burutu nahi duten kontsumo energetikoaren gaineko diagnosia aurkeztuko dute. Aurrez baimena ematen duten zubietarren etxebizitzetara bisitak egin asmo dituzte. Honen inguruko xehetasunak ere eskainiko dira, zubietarren zalantza eta galderak erantzutearekin batera.

**Ika-Mika**

# Kandela ez dadin itzali, orain Bilboko kaleetara!

Hilabete pasa egin du Usurbilgo dema plazan Kaleraguneak, preso ohiek euskal preso politikoen eskubideen alde abiatutako ekimenak. Egun hauetan ehunka preso ohik eta errefuxiatuk parte hartu dute bertan, kamiseta urdinak soinean eta etxean falta diren presoak oroituz piztutako kandelak eskuan zituztelarik. Hamaika ekimen antolatu dituzte eta txalotzekoa eta eredugarria izan da Usurbilgo herriarekin ekimen honek izan duen begirunea eta errespetua, eta, aldi berean, Usurbilgo herriak ekimen honekiko erakutsi duen begirunea, enpatia, elkartasuna eta abegikortasuna ere. Eskerrik beroenak denoi, berriro ere usurbildarrok erakutsi baitugu gure eskuzabaltasuna mota honetako ekimenekiko eta presoen egoerarengatik dugun kezka.

Izan ere, oraindik ere kezkatzekoa da, euskal jendartearen gehiengo zabal baten eskariari entzungor eginez, Frantzia eta Espainiako gobernuek ezartzen duten espetxe politika krudel honen ondorioz, euskal presoek bizi duten egoera. Euskal jendarteak bakea eta bizikidetza eraiki nahi dituen garaiotan, euskal presoak, herrikide ditugun Olatz eta Patxi bezala, ehunka eta ehunka kilometrora sakabanatuta dituzte, senide eta lagunak astebururo asteburuoro milaka kilometro egitera behartuz; bereziki larria da preso gaixoek pairatzen duten egunerokoa, eta hauen askatasuna ukatuz iritsi diren epaiak, Ibon Fernandez Iradi lasartearrarena kasu… Horregatik, presoen oinarrizko giza eskubideak urratzen dituen politika kriminal hau ozen SALATU nahi dugu. Eta horregatik, Bilbon larunbat honetan Sarek deituta egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egin nahi dugu Usurbilgo EHBildutik.

Ez dugu dudarik presoen afera konpontzeko eta bakea lortzeko, euskal jendarteak egiten duen lana ezinbestekoa dela, eta horretan Kalera Kalera gisako ekimenek duten garrantzia. Gure indarretan sinistu behar dugu. Gai gara. Luhusuko atxiloketen harira izan ziren manifestazio eta ekimen jendetsu eta anitzek ahalbidetu zuten "bakearen artisauak" etxeratzea. Bidea hori dela argi dugu, eta kasu honetan ere, Espainia eta Frantziako estatuak mugiarazteko eta behingoz giza eskubideak eta legeak errespetatuz, gai honetan urrats finkoak emateko herri mobilizazioak dira giltza. Gu gara giltzarriak, gutariko bakoitzaren ahalegin eta borondatea. Abenduan piztu dugun kandela ez dezagun itzali, eta bete ditzagun orain Bilboko kaleak. Entzun gaitzaten, espetxeak hustutzeko, kaleak bete behar ditugu. Larunbatean Bilbora!

**Usurbilgo EHBildu**

# 2017ko udal aurrekontuak, hasieraz onartuak

Duela urtebete aurkeztu zuen udal gobernu taldeak, udal langile, eragile eta herritarrekin batera landutako legegintzaldi honetarako udal gobernu programa. Gobernu programa hartan bildutako ekarpen eta erronkei erantzungo diote neurri handi batean, 2017ko udal aurrekontuek.

Aurrekontuon ardatz nagusien berri eman zuen udal gobernu taldeak, abenduaren 20ko ezohiko osoko bilkuran: herritarren eskubideen alde egingo dute, ongizatea sendotu, enplegu duina sustatu, enplegu publikoa defendatuko dute, murrizketa sozialen aurkakoak izango dira, pertsonak erdigunean jarriko ditu, hizkuntza normalizazioa eta berdintasun politikak txertatuak izango dituzte...

Udal aurrekontuetako inbertsio nagusien artean, Etxebeste eta Irutasuna kaleen berrurbanizazioa, hilerri berriaren handitzea, Galtzaragaina plazaren berritzea, Oiardo Kiroldegiko aireztapena berritzea, Kale Irekiak egitasmorako laguntza, herri eragileentzako diru-laguntzak, Zumarteren birgaitze proiektuaren garapenean urratsak ematea... aurreikusten dute. Hasieraz eta gehiengo osoz onartu zituen udalbatzak 2017rako udal aurrekontuok, abenduaren 20an egin zuten ezohiko osoko bilkuran.



Udal aurrekontuek ez dute oposizioaren babesa jaso. Argazkia, artxibokoa.

*LASTER, INDARREAN*

***Abenduaren 20ko ezohiko udalbatzaren plenoan onartu zen 2017ko udal aurrekontua***

## Behin betiko onartzear

- 2016/11/09: Aurrekontu proposamenaren aurkezpena Ogasun Batzordean.
- 2016/11/24: Zuzenketen aurkezpena Ogasun Batzordean.
- 2016/12/14: Udalbatzarrerako irizpena ematea Ogasun Batzordean.
- 2016/12/20: Udalbatzarraren hasierako onarpena, ezohiko osoko bilkuran.
- 2016/12/28: Udalbatzarrak hartutako erabakiaren argitalpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- 2016/12/29: Egun honetatik aurrera zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko 15 lan eguneko epea.

## 2017ko udal aurrekontua: 11.057.464 euro

**Sarrerak:**

-Sarrera arruntak: 10.581.137 euro.

-Kapital sarrerak: 476.327 euro.

**Gastuak:**

-Gastu arruntak: 9.417.559 euro.

-Kapital gastuak: 1.639.905 euro (inbertsio errealak = 1.220.837 euro).

## Zumarte eta Eskola Publikoa, oposizioaren eskaerak

Behin behinean onartu aurretik, ekarpenak biltzeko egon zen tartean, emendakinik ez zuten aurkeztu oposizioko udal taldeek, gobernu taldeak azken osoko bilkuran adierazi zuenez. “Horregatik, udal aurrekontuekin bat egiten duzuela ulertzen dugu, zuen aldeko bozka izango dugula”, zioten gobernu taldetik, oposizioko udal taldeei zuzenduz.

Bestelakorik erantzun zuten ordea oposiziotik. Haien eskaerak formalki erregistratu ez arren, EAJtik ziotenez “gure desadostasunak ez dira kontuan hartu”. Zumarte Musika Eskolaren birgaitze proiektuaren kasuan esaterako. “Memorian bai agertzen da puntu hori, baina aurrekontuan jartzea eskatzen genuen”, zioen Josune Urkolak eta aurka bozkatuko zutela iragarri zuen.

Gai honi buruz udal taldeek egin dituzten batzordeak modu parte hartzailean bideratu dituztela gogorarazten zuen Alaitz Aizpurua zinegotziak, aurrekontuak “zuekin partekatu ditugu” zioen EAJ-ko kideei zuzenduz. Zalantzak argitu eta ekarpenak biltzeko egon den epearen baitan, Zumarteren proiektuari buruzko xehetasun batzuen aipamena salbu, EAJ-k ez zuela ekarpenik egin zioen, eta musika eskolari loturikoak egokiago ikusi zutela memorian biltzea.

Zumarteren proiektuan funtsean bai EAJ bai EHBildu ados zirela adierazi zuen alkateak, desadostasuna irizpide teknikoetan kokatzen zuen. Bozketak horren isla izan beharko zukeela zioen Arregik. “Ze proposamen jaso beharko genuke EAJ-k aldeko bozka emateko?”, galdetzen zuen alkateak. EAJ-k ez zuen posizionamenduz aldatu; aurka bozkatu zuen. PSE abstenitu zen. Fermin Oruek, baldintza bezala jarria zuen Eskola Publikoaren aldeko aurrerapausoak ematea. Zioenez, horregatik bozkatu zuen 2016ko udal aurrekontuen aurka. 2016an ordea, bide horretan zenbait pauso eman direla ikusita, eta aurten gobernu taldeak Eusko Jaurlaritzarekin hartuemanetan jartzeko borondatea erakutsi duela ikusita, abstenitzea erabaki zuen PSE-k. “Ia lortzen duen Usurbilek Eskola Publikoa izatea”, zioen PSE-ko bozeramaileak. Honenbestez, EHBilduren aldeko bozkekin gehiengo osoz hasieraz onartu ziren 2017rako udal aurrekontuak.

# “Ez zuten gu argazki horretan ateratzea nahi”



Urbil ondoko bidegorriaren inaugurazio ekitaldira ez zuten Usurbilgo Udala gonbidatu. Irudian, Marisol Garmendia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatua eta Jesús Zaballos Lasarte-Oriako alkatea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako Udalak, Urbil merkatal gune ondoko bidegorri zatia inauguratu zuten joan den abenduaren 2an, Usurbilgo udalerriko lurretan, Udalak Aldundiari berari lagatako lurretan hain zuzen, eta udalerri honetako Udalari jakinarazi gabe. “Prentsaren bidez jakin dugu inaugurazio horren berri”, zioen abenduaren 20an eginiko osoko bilkuran, EH-Bilduk aurkeztu eta gehiengo osoz onarturiko gai honen inguruko mozioak.

Testu honetan, Udala kexu agertzen da, bi erakundeok erakutsi duten jarreragatik. Kexua bai Aldundiari baita Lasarteko Udalari helaraziko diotela iragartzen du mozioak. “Usurbilgo herriarenganako errespetua eskatzen dugu. Ez da gizabidezkoa, ez politikoki ezta pertsonalki ere, Usurbilgo lurretan bidegorria estreinatu eta Udalari inolako jakinaraz–penik ez luzatzea”.

Jokabide honek alderdi interesei, erantzuten dio ez herri interesei gobernu taldearen esanetan. “Ez zuten gu argazki horretan agertzea nahi”, zioen Xabier Arregi alkateak.

**Usurbilgo bidegorri zatiak lehenesteko eskaera**

Egitasmoari dagokionez, mozioak dioenez, “Usurbili dagokion bidegorria, Txikierdira arteko zatia izan ezik, egiteke eta planifikatzeke dago oraindik. Gipuzkoako Foru Aldundian sarritan eskatu arren, honek ez die Usurbilgo Udalaren eskariei erantzun”. Bidegorri Sare osoa egiteko konpromisoa berrestea eskatzen diote Diputazioari eta Usurbilgo bide zatiak lehenestea. Batzar Nagusiek 2013an aho batez urteko 14,5 milioi euro inbertituta zortzi urteetan egitasmo hau gauzatzea aurreikusten bai–tzuten, baina 2016an 2,3 milioi euro inbertitu dira proiektu honetan, eta 2017an 1,8 milioi euro inbertitzea aurreikusten dute.

*USURBILGO UDALA*

***“Ez da gizabidezkoa, ez politikoki ezta pertsonalki ere, Usurbilgo lurretan bidegorria estreinatu eta Udalari inolako jakinarazpenik ez luzatzea”***

Mozioko azken puntu hau aparte bozkatzea proposatu zuen PSE-ko udal ordezkariak. Puntu honen aurka agertu zen. EAJ abstenitu zen, eta alde agertu zen EHBildu. Mozioko gainerako puntuek udal taldeen aho bateko babesa jaso zuten.

**Udal taldeak elkarlanerako prest**

Desadostasuna eragin zuen mozioko puntuaren inguruan jardun zuten, testua bozkatu aurretik, azken osoko bilkuran. Puntu horretan, Usurbilgo Udalak Aldundiari udalerri honetako bidegorri zati osoa eraikitzeko konpromisoa eskatzen dio, egiteke eta planifikatzeke dagoelako. Proiektu honekin “aurrera egiteko asmorik ez dugu ikusi” zioen alkateak. Honen inguruan, PSE-ko ordezkari Fermin Oruek zioenez, 2013an Batzar Nagusietan aho batez onarturiko plan honen baitan, 2017an Lasartetik Txikierdira doan zatia eraikitzekoa dela adierazi diote Aldunditik. Eta Txikierditik Santuenerako zatia, 2018-22 urte artean egitera konprometitua dago Aldundia.

Gobernu taldetik, PSEko ordezkariak eginiko lana eta eskainitako informazioagatik eskertu eta aurrera begira, Aldundira elkarrekin joatea proposatu zuen alkateak. Planteamenduak babesa jaso zuen oposiziotik.

Irudia: Lasarte-Oriako Udalaren web orritik hartua.

## Udalaren ahots eta datu komunikaziorako sareari loturiko esleipena

Linea 3000, SL enpresari esleituko dio Usurbilgo Udalak, “ahots eta datu komunikaziorako sarearen beharrezko elektronika hornitzea, sarearen mantentze eta laguntza teknikoko lanak burutzea, sarearen kudeaketa eta instalakuntza zerbitzuak ematekо kontratua”. Hala erabaki zuen udalbatzak gehiengo osoz abenduaren 20ko ezohiko osoko bilkuran, EHBildu eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen.

## Udal lanpostuen zerrenda

2017. urterako udal lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa hasieraz eta gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak, abenduaren 20an egin zen ezohiko osoko bilkuran, EHBilduren eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen.









# Milaka gipuzkoar, erraustegiaren lizitazioaren aurkako protestan

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, lizitazioa zela eta, abenduaren 27an Donostiako Gipuzkoa plazan haserrea adierazteko eginiko deialdiak harrera itzela izan zuen. Milaka gipuzkoar batu ziren, Foru Aldundi atariko elkarretaratzean eta segidan egin zuten manifestazioan.




Abenduaren 27an jende ugari bertaratu zen Donostiako Gipuzkoa Plazan.

Mobilizazioko deitzaileek argi zioten, lizitazioa gauzatuta hemen ez dela ezer amaitzen. “Aurrera jarraituko dugu Gipuzkoako herritarrok erraustegi kriminal hau gelditu arte”, iragarri zuten. Itxaropentsu agertu ziren, “gaur ez bada bihar erraustegi kriminal hau gelditzeko. Eta horretan saiatu eta borrokatuko garela, bakean eta sendo”.

E. A. M.

***Itxaropentsu agertu ziren, “gaur ez bada bihar erraustegi kriminal hau gelditzeko. Eta horretan saiatu eta borrokatuko garela, bakean eta sendo”***

Aurrera begirako “etxeko lanak” zerrendatu zituzten: ahalik eta erreus gutxien sortzen duten gaikako bilketa emaitzadunak Gipuzkoa osora zabaltzea; hondakinen kudeaketa ona egiten ari diren udalerriak eta kalitatezko zerbitzu publikoak defendatzea; udalek beren eskumenei eustea “esku pribatuetan utzi gabe”; Rezola lantegiko hondakin toxikoen errausteaz informatu eta salatzea; herritarrok politikagintzan benetako parte-hartzea izateko eskubidea eta praktika izatea; alternatiben konfrontazio publiko eta demokratikoa sustatzea.

## Eskertza

Esker hitzak izan zituzten azken urteotan erraustegiaren aurka eta gipuzkoarron osasun, ekonomia eta ingurumenaren alde aritu direnentzat; atez atekoa edo gaikako sistema kontrolatuekin aurrerapenak egin dituzten udalerrientzat, aurreko legealdian erraustegia geratzea lortu zutenentzat; Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea (OEIT), GuraSOS, Gipuzkoa Zutik, herri plataforma, koordinadora eta kolektiboarentzat.

Irudi bilduma: ww.noaua.eus atariko Argazkitegia atalean.

# Proiektua bertan behera uzteko eskaera

2010eko apirilaren 23an emandakoa iraungita dagoenez, eta luzatu eta moldatu ezin daitekeenez, ingurumen baimena gaurkotu arte, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari (GHK) erraustegiaren proiektua bertan behera uztea eskatu dio EHBilduk Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari. Eta gai honen inguruko argibideak ematea.

EHBilduk dio GHK eta Aldundia jakitun direla esleipen honekin aurrera jarraitzeak izan ditzakeen ondorio juridikoez, eta Jaurlaritzari arduraz jokatzeko eskatzen diote, “eta Diputatu Kontseiluari abisu eman diezaien irregulartasunak daudela, irregulartasun horiek Proiektua ezin exekutatzera eraman dezaketela eta administrazioaren erantzukizun patrimoniala egon daitekeela. Erantzukizun hori, noski azkenean herritarrok ordaindu beharko dugu”.

**Lizitazioa geratzeko eskaera**

EHBilduk, Podemosek, Ezker Anitza-IUk eta Equok erraustegiaren lizitazioa geratzea eskatu zuten lizitazio egunaren bezperan egindako agerraldi bateratuan. Lizitazioa geratu daitekeela diote, zero zabor filosofian eta ekonomia zirkularraren ereduan sakondu, eta Europako parametroetan oinarrituta, azpiegitura alternatiboak eraiki. Eragileok maiatzaren 11n aurkezturiko akordioarekin bat egiten segitzen zutela adierazi zuten. Elkarrizketarako deia egiten diote Gipuzkoako Foru Aldundiari.

## Atxilotu bat, erraustegiaren aurka protestatzeagatik

Lagun bat atxilotu zuen Donostiako Udaltzaingoak abenduaren 20an, hiriburuko udaletxean egiten ari ziren osoko bilkuran. Hamarnaka lagun kartelak eskutan erraustegiaren aurka burutzen ari ziren protesta ekintzaren ostean izan zen. EAJ, PSE eta PPren aldeko bozkekin, eta Irabazi eta EHBilduren aurkako botoekin Donostiako Udalak Artzabaletako hirigintza proiektua onartu zuenean. Alkate Eneko Goiak bertan behera utzi zuen osoko bilkura.

Horren ostean, udaltzain talde bat pleno aretora sartu eta bertan zegoen Gipuzkoa Zutik mugimenduko kide batengana jo zuten zuzenean. Bertatik irteteko eskatu zioten, identifikatzeaz gain. Berak ezetz, eta azkenean aretotik aterarazi zuten. Pleno aretoko atea itxi zuten. Barruan zeudenak ezin atera, eta atxilotu zuten lagunak lurrera bota, eskuburdinak jarri, eta lepotik heldu ziotela itolarria sentitzeraino, adierazi dio aldizkari honi. Pleno barruan atera ezinik zirenak kanpora irtetean amaitu zen trantze hura.

Gero, udaltzainen autoan sartu eta Easo kaleko egoitzara eraman zuten. Eta handik gutxira aske utzi. Atxilotuari jaietan erabili ohi diren konfeti koloretsuen jaurtigailu bat erabili izana egozten diote eta konfiskatu ziotela jasotzen du, udaltzainen parteak. Eta jaurtigailu hura erabiltzeagatik utzi zutela osoko bilkura bertan behera eta jendea aterarazi zutela, alkatearen aginduz. Atxilotua gero medikutara joan zen. Sendagilearen parteak dioenez, traumatismo zerbikala eta itotzen ahalegindu izanaren zeinuak zituen lagun honek. Eskuburdinak jarri izanaren markak zituen eskumuturretan eta odol bildudun puntuez betea zuen aurpegia, aldizkari honekin hitz egin zuenean.

# Aginaga izan zen Alejandro Tapiaren inspirazio iturri

Abenduaren 24an hil zen 86 urteko artista aginagarra. Ur taldeko sortzaile, eskulturak, koadroak, grabatuak, denetariko arte-lanak egin ditu urte luzeotan.

Zaharberritzaile bezala hasi zen lanean, aldi berean, aire librean margotzen aritzen zen. Gipuzkoako Artisten Elkartera joaten hasi zen. Ur taldea sortu zuen, Javier Arocena, Carlos Bizcarrondo eta Jose Gracenea sortzaileekin batera. Hainbat erakusketa antolatu zituen. Aginagan, Eliza Zaharrean, 2008ko urrian antolatu zuen lehen erakusketa, "Gordeta ditudanak", bere ibilbidean zehar eginiko sortze lan ugarirekin. Erakusketa honen harira eskultura bat landu eta inauguratu zuten. Inaugurazioa Alejandroren aldeko omenaldian bilakatu zen.

## Muralista

Zubiaurrenea kale ondoan margotu zuen murala, larros eder batekin esnatu zitzaigun hilaren 27an.

1985. urtekoa da Tapiaren sormen-lan hau, "enblematikoa bilakatu zen urteen poderioz. 1985ean Herri Batasunaren "Euskal Herria alaitsu eta borrokan kementsu" kanpainaren harira egindako muralak Euskal Herriko historia hurbileko garai esanguratsua islatzen zuen. Hain zuzen ere, bere ikusgarritasun eta edertasunaren gainetik, aro eta borroka politiko baten adierazle izateagatik ezaguna egin zen margolana eta hainbat liburu, aldizkari, erreportaje eta telebista dokumentaletan agertu izan zen, Usurbildik haratago, baita atzerrian ere", muralaren alboan dagoen paneltxoak oroitarazten digunez.



2008ko udazkenekoa da argazkia, "Gordeta ditudanak" erakusketa inauguratu zuenekoa. Azken unera arte lanean aritu zen Alejandro Tapia.

## 2009ko suntsiketa

Murala, 2009 ezabatu eta itsusitu zuten, Tapiaren artelanaren ondoan dagoen informazio panelak ondo baino hobeto oroitarazten digunez. "2009. urtean, ordea, Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren aginduz eta ertzainen babesarekin, artelana ezabatzeari ekin zioten, aspalditik herriaren paisaiaren parte zen murala pintura golpeen bidez suntsituz. Garaiko aldarrikapenak ezabatzeaz gain, inor zehazki irudikatzen ez zuten aurpegien begiak ere estali zituzten pinturarekin. Ikurriña suntsiketarengatik salbatu bazen, herritar batek "Hori ere legez kanpokoa al da?" jaurti zuelako izan zen. Orduan gelditu ziren brotxa suntsitzaileak", dio aipatu panelak.

Panel berak nabarmentzen duenez, "herri batek merezi du gertatutakoa jakitea. Merezi du bere historia ezagutzea". Eta "iragana present izatea. Horregatik, horren guztiaren oroigarri gisa, azaldu nahi izan da hemen gertatutakoa. Muralak, Usurbilen, artelanaz gain, historiaren zati direlako".

## Herritarren gogoan

Hil eta gutxira, bide eta modu ezberdinetatik, ekimen txiki eta era berean nabarmentzeko moduko lore eta mezuekin omendu zuten abenduaren 24an hil zen artista. Sorterritik hasita gainera. Aginagako Jai Batzordeak eta Aginagako gazteek, Tapiaren irudiarekin batera, honako mezu honekin oroitu eta omendu dute sortzaile aginagarra: "Alejandro Tapia Aiestaran (1930-2016): "Zauden lekuan zaudela, besarkada bat eta esker oneko hitzak, ez dugu besterik. Eskerrik asko, urte luze guzti hauetan eskaini diguzun baldintzarik gabeko laguntzagatik. Gogoan izango zaitugu".

Abenduaren 27ko Berria egunkarian, Antton Olariaga komikilariak Alejandro Tapiari eskaini zion bere tira.



# Erraustegiaren lizitazioa bertan behera, epaitegiek GuraSOSen errekurtsoa ebatzi arte




**“Oso pozik gaude, justiziak garbi utzi duelako, herriaren gainetik, justiziaren gainetik ezin daitezkeela gauzak egin”, Joseba Belaustegik hala azaldu zuen urtarrilaren 5eko agerraldian.**

GuraSOSek Gipuzkoako Hiri Hondakinen Planaren aurka zuen errekurtsoa Euskadiko Auzitegi Nagusiak ebatzi arte, Donostiako epaitegiak Foru Aldundiari lizitazioa suspentsoan uztea agindu zion urtarrilaren 5ean. Alegia, erraustegiaren lizitazioa bertan behera geratu da oraingoz; bai behintzat, epaileak aipatu errekurtsoa ebatzi artean. Epaitegietatik heldutako azken orduko albistea baloratzeko urgentziazko agerraldia egin zuen arratsalde berean GuraSOSek hain zuzen, Donostiako epaitegi atarian.

*GURASOS*

***Dossier bat plazaratu du guraso taldeak. Bertan, erraustegiaren proiektu honi loturiko irregulartasunak agerian uzten ditu. Ondorio argi batera heldu da GuraSOS. “Proiektu hau guztiz bideraezina da eta ez da gauzatuko”, ohartarazi dute***

**“Hitz egin behar dugu”**

Honakoa gipuzkoarrontzako albiste oso garrantzitsua dela nabarmendu zuten, azken egunotako gertakarien ostean harriduratik poztasunera igaro diren GuraSOSeko kideek. “Oso pozik gaude, justiziak garbi utzi duelako, herriaren gainetik, justiziaren gainetik ezin daitezkeela gauzak egin. Inolaz ere, gauzak egitekotan herri honetan, herritarrekin kontatu beharko da, justizia aintzakotzat hartu beharko da”, adierazi zuen GuraSOS elkarteko lehendakari Joxe Mari Izetak.

Azken egunotako gertakariekin herritarrak agintariekiko konfiantza galtzen ari zirela adierazi zuten. “Eta berriro ere konfiantza hori berreskuratzeko ahalegin handi bat egin beharko dugu”, nabarmendu. Konfiantza hori berreskuratzeko, GuraSOSen aldarri izan diren elkarrizketa eta adostasunaren bide horretara itzultzeko deia egin zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari. Eta hurrengo bilera, epaitegietan ez, Aldundian bertan izatea eskatu zuten. Herritarrei entzun egin behar zaiela gogorarazi zuten, prozesu parte hartzaile bat martxan jarri eta “gure seme alaben osasuna gehien bermatuko duen kudeaketa posible egin behar dugu”.

**“Abenduaren 27an ez zen lizitaziorik izan”**

Abenduaren 27an ez zen erraustegia eraiki eta kudeatzeko kontratua esleitu, esleipen hau gauzatu aurretik egin beharreko tramite bat baino ez zuen onartu Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK), GuraSOSek jakitera eman duenez.

Dossier bat plazaratu du guraso taldeak. Bertan, erraustegiaren proiektu honi loturiko irregulartasunak agerian uzten ditu. Ondorio argi batera heldu da GuraSOS. “Proiektu hau guztiz bideraezina da eta ez da gauzatuko”, ohartarazi dute.

## EAJ: “Gizartearen gehiengoak ez du onartzen jarduteko modu hori”

2013an, Bilduk gobernatzen zuen Foru Aldundian, eta gehiengoa zuen GHK-n. Erraustegia eraikitzeko kontratuak eten egin eta 8,2 milioi euroko kalte-ordaina eman zieten eraikitzaileei —ordura arte egindako lanengatik beste 2,8 milioi ere jaso zituzten—. Urtarrilaren hasieran, Donostiako Administrazio Auzitegiak bertan behera utzi du aurreko legealdian Gipuzkoako Aldundiak erraustegia eraiki behar zuten eraikitzaileekin lortutako akordio hura. EAJk prentsa ohar bidez aditzera eman duenez, “ebazpen judizial horrek argi erakusten ditu inposizio eta arduragabekeria politikoko estrategia batek ekar ditzakeen okerreko ondorioak, eta oinarrian dagoena da dinamika demokratikoa bahituz politika egin daitekeela pentsatzea”.

## Intxaurrandieta: “Egindakoak ondo egin genituen”

2013an, GHK-ko buru zen Ainhoa Intxaurrandieta. Berria egunkariari aditzera eman dionez, “egindakoak ondo egin genituen. Neurriz goiko planta bat zen; kanpoan hondakinak erosten aritu beharko genuen, eta horren froga da hurrengo proiektua askoz tona gutxiago jasotzeko egin dutela. Gelditu egin behar genuen; ez zegoen beste aukerarik”.



**GHK, enpresa eraikitzaileak eta Foru Aldundiko ordezkaria, 2013an adostutako akordioan.**

# Txotx garaia da

Sagardo berria dastatzeko denboraldia irekiera ekitaldiokin estreinatuko da egunotan:

■ Urtarrilak 11 asteazkena, 12:00etan Sagardoaren Lurraldeak antolaturiko ekitaldia Astigarragako Sagardoetxean.

■ Urtarrilak 12 osteguna, 20:00etan irekiera ekitaldia Saizar Sagardotegian, Julen Lopetegi futbol entrenatzailearekin. Kepa Junkerak Saizarko sagardoari, danborradari eta Usurbilgo herriari eskainitako "Sagarraren Danborrada" abestia aurkeztuko da. Andoni Egaña bertsotan eta Sorginak taldekoak dantzan ariko dira. Julian Iantzik aurkeztuko du hitzordua.



## Euskal Sagardoa jatorri-deitura

**Astelehenean aurkeztu zen Euskal Sagardoa jatorri-deitura berria. %100 bertako sagarra eta kalitate-bermea duten sagardoek lortuko dute sor-markaren zigilua. Usurbilen, Aialde Berrik eta Saizarrek izango dute jatorri-deitura. Aurrerantzean, beraz, kalitatezko bi marka publiko egongo dira merkatuan: Euskal Sagardoa eta Gorenak.**

■ Urtarrilak 14 larunbata: Urdaira eta Aialde-Berri sagardotegien irekiera.

Zabalik: Aginaga, Araeta, Arratzain eta Iruin sagardotegiak.

## Ahalduntze ikastaro berri bat hasiko da urtarrilaren 20an

Bi ikastaro berri antolatu ditu Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Batetik, ostegun honetan hastekoa zen mindfulness tailerra, Pepa Bojo psikologoarekin. Laster abiatuko dute bestalde biodantza ikastaroa, "norberaren gorputza ezagutzeko".

**Izen-ematea, irekita**

Urtarrilaren 20tik apirilaren 7ra luzatuko den ekimeneko saioak, ostiraletan 17:00-18:30 artean izango dira, Oiardo Kiroldegian. Izena urtarrilaren 17a baino lehen eman behar da Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailean.
943 377 110
parekidetasuna@usurbil.eus
Oharra: usurbildarrek lehentasuna izango dute.








Oporren aurretik, Udarregiko ikasleak kalejiran ibili ziren.



Haurrak zein gazteak, gabon kantuak eskaintzen aritu ziren.



Eguberrien atarian, ospakizunik izan zen Zubietako Eskola Txikian.



Argazkian ageri direnak Zubietan barrena ibili ziren kantuan.



Kantuan aritzeko, kuadrila ederra batu zen Aginagako Eskolan.



Aginagako haurrek Mari Domingiren bisita jaso zuten.



Olentzero Santuenean barrena ibili zen, kalejiran.



Urte berriko lehen egunetan, zero azpitik izan genuen termometroa.


Parrokia taldeko kideen kantaldia eliza paretik abiatu zen.


Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kalejira berriz, Aitzaga paretik.



Jende asko ibili zen kiroldegian ipini zen Jolas Parkean.


Argazki honetan dituzue Hurbilago elkartearen zozketan saritutakoak.


San Silvestre lasterketan adin guztietako korrikalariak batu ziren.


San Silvestren irten zirenek urtea kirola eginez agurtu zuten.


Erregeen postaria haurren gutunak batzera etorri zen.


Errege Magoen etorrerak ikusmin handia piztu zuen.

# “Usurbil 0.0”, hondakinen kudeaketa eredu integralerako bide-orria

Aditu ospetsuen babesarekin, erreferen–tziazkoa eta egingarria izan nahi duen bide-orria aurkeztu zuen abenduaren 22an Usurbilgo Udalak; “Usurbil 0.0”. Udalerri honek hondakinen kudeaketa eredu integral baterantz bidea jorratzen lagunduko duen egitasmoa.

“0.0 ereduaren bitartez, urrats bat gehiago eman nahi da. Erabili eta bota oinarri duen ekonomia lineal batetik, hondakinak lehengai bihur–tzen diren ekonomia zirkular baterantz iristea da helburua”, dio Udalak.

## Abiapuntua

Behin behineko dokumentua da plazaratu dutena. Orain hasi eta martxora bitarte, herritar, eragile eta adituen ekarpenekin ondu nahi den prozesu baten hasierako dokumentua. Martxoaren 16an aurkeztuko dituzte ordura arte eginiko lanketaren behin betiko ondorioak. 2023. urtera begirako helburuak finkatuko ditu.




**Hondakinen kudeaketan, eredu integral baterantz bidea jorratzen lagunduko duen egitasmoa da “Usurbil 0.0” ekimena.**

USURBIL 0.0

*“Erabili eta bota oinarri duen ekonomia lineal batetik, hondakinak lehengai bihurtzen diren ekonomia zirkular baterantz iristea da helburua”*

## Herrian sortutakoa, herrian bertan tratatu

Egitasmo hau ez da hutsetik hasten, 2009an abiaturiko atez atekoari esker, hondakinak era arduratsu batean kudeatzen Usurbil aitzindari baitugu Euskal Herrian.

Urrats gehiago ere eman dira. “Usurbil 0.0” egitasmo berri honek, herrian sortutako hondakinak herrian bertan tratatu eta berrerabiltzeko bidean sakontzeko dauden aukeren gaineko azterketa jasotzen du. “Balizko egoera horren azterketa tekniko, ekonomiko zein juridiko ezberdinak egin eta lehen ondorio batzuk atera ditu. Halere, ondorio horiek nazioarteko hainbat aditurekin eta usurbildarrekin partekatu nahi ditu, ahalik eta era osatuenean egin asmoz”, diote Udaletik. Hondakinen kudeaketa eredu propio bat garatzea plantea–tzen dute. Eredu ere izan nahi duena Gipuzkoako beste udalerrientzat.

## Eredu jasangarria

Egitasmoak bat egiten du guztiz zero zabor filosofiarekin. Baina zero horrek zero gehiago izatea nahi dute beste eremuetan. Hortik, bide-orriari jarri dioten izena; “Usurbil 0.0”. Hondakinak kudeatzeko alternatiba jasangarri eta ekonomikoa eskaintzen du, ingurugiroa eta osasuna errespetatzen ditu.

# “Usurbil 0.0”, bide-orria

**Parte hartuko duten agenteak**

- Ramon Plana Gonzalez-Sierra: biologian doktorea eta hondakin organikoen tratamenduetan aditua.
- Ignasi Puig Ventosa: “Ent” ingurumen aholkularitzako proiektuen koordinatzailea.
- Joan Marc Simon: Zero Waste Europe erakundeko zuzendaria.
- Gorka Bueno/Ainhoa Iraola/Dani Zuazagoitia: EHU-ko Ingenieritza Eskolako ordezkariak.

**Programa honek lorgarritzat dituen “Zeroak”**

- 0 hondakin birziklagarri gaika bildu gabe: “Ez dadila birziklagarria den ezer ondo jaso gabe gelditu”.
- 0 hondakin birziklagarri aprobetxatu gabe: “Ez dadila xahutu materialki birziklagarria den ezer”.
- 0 hondakin biodegradagarri zabortegian.
- 0 hondakin desmaterializatu edo erraustu.
- 0 hondakin ekonomia zirkularretik at.
- 0 defizit zerbitzuan.

**Ikuskera horren oinarrizko ezaugarriak**

- Herritarrak ahalduntzea.
- Eginkizun eta arduraren dimentsio kolektiboa indartzea.
- Ingurumena eta osasuna lehenestea.
- Azpiegitura makro eta erraldoien ordez, azpiegitura doitu eta eskalagarriak sor–tzea: “Tokiko konponbideak arazo globalei”.

**2023rako erronkak**

- Usurbilgo hiri hondakinen sorrera %10 murriztea.
- Usurbilen sorturiko biohondakina herrian konpostatu eta erabiltzea (700 tona biohondakin inguru).
- Hiri hondakinen %90a gaika biltzea.
- Zabortegian isurtzen diren hondakinak inerteak eta gehienez ere %5 material biodegradagarri izatea.
- Hiri hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren defizita 0 izatea.

# Adituen babesa eta laguntza izan dute

Usurbil 0.0 egitasmoak aditu ospetsuak izango ditu bidelagun, herritar eta eragileekin batera. Adituok bide-orri berri hau aurkezteko abenduaren 22ko jardunaldietan parte hartu zuten. Han zen Joan Marc Simon, Zero Waste Europe erakundeko zuzendaria. Erakunde honek, Usurbil ere kide izan eta zero zabor izendapena duten 400 udalerriko sarea osatua du Europa mailan.




**Usurbil 0.0 bide-orriaren aurkezpenean, hainbat adituk hartu zuten parte. Tartean, Joan Marc Simon Zero Waste Europe erakundeko zuzendariak.**

## Europari aurre hartu

Usurbil abiatzera doan egitasmo berri honekin, aipatu zuenez, Europak 2030. urterako finkatzen ari den helburuei aurre hartuko die; lehenago, helburuok 2023. urterako betetzea aurreikusten baita. Udalerri hau Europa mailan praktika onen esperientzia moduan, jarraitu beharreko eredu gisa ezagutzen da. Interesgarria da bere ustez, hemen egiten gabiltzana kanpoan ezagutzera ematea eta kanpoan egiten dena gure artera ekartzea; "praktika onak lotzea erabilgarria izan daiteke".

Simonek lankide izango du baita prozesu honetan, Ignasi Puig, "Ent" ingurumen aholkularitzako proiektuen koordinatzailea. "Plan honek elementu berritzaileak izango dituela aurreikusi dezakegu", zioen aipatu jardunaldietan.

> IGNASI PUIG
>
> *Katalunian ibilbide luzeagoa du atez atekoak, eta han, hondakinen kudeaketa "inoiz ez da eztabaida politikorako gaia izan"*

## Zazpi udalerri

Usurbil, hondakinen sortzez besteko sistema martxan jartzen aitzindarietakoa dela gogorarazi zuen. Estatu mailan zazpi bat udalerrik soilik emana baitute pauso hau. Beste udalerrietako esperientzia ekartzen ahaleginduko dira.

Ignasi Puigek harridura agertu zuen, hondakinen kudeaketa "oso politizatua" dagoela-eta. Katalunian ibilbide luzeagoa du atez atekoak, eta han, hondakinen kudeaketa "inoiz ez da izan eztabaida politikorako gaia", zioen.

# Praktikoa, eredugarria eta hezigarria

Ramon Plana, biologian doktorea eta hondakin organikoen tratamenduetan aditua dugu. Berak aurreratu zigun, egitasmo berri honen etorkizuneko erronketako bat; herrian bildutako zati organikoa lehengai gisa baliatzea nahi dute gero, udalerrian bertan, herriko ekoizleek.

Kontuan hartzeko moduko mezu argigarri bat ere helarazi zigun; "ez zarete jabetzen, zuen udalerritik zer ari zareten helarazten". Adibide moduan aipatu zuen, iaz gure artean izan genuen Galizako erakundeetako ordezkaritza bat. Eredugarri iruditu zitzaien Usurbilgo esperientzia eta egun, konpostatze egitasmoen aldeko apustua egiten dabiltza.

**Kudeaketa eredu propiorantz**

Euskal Herriko Unibertsitateko Ingenieritza Eskolako ordezkaritza batek ere parte hartuko du Usurbilek hondakinen kudeaketa eredu propiorantz jorratuko duen bide honetan; Ainhoa Iraolak, Dani Zuazagoitiak eta Gorka Buenok. Bueno, Potxoeneko aurkezpen saioan izan zen hilaren 22an.

**"Asko ikasi dut Usurbilen"**

Ezaguna du udalerri hau, "klasikoan" bihurtu baita beretzat, ikasleekin Usurbilgo esperientzia ezagutzera etortzea. "Asko ikasi dut Usurbilen", adierazi zuen. Eta hala egiten segi nahi du, ikuspegi akademikotik bere ekarpena egiteaz gain, prozesu hau ere baliatu nahi baitu, unibertsitate barruan duten lan talde bat laguntzeko ere. Hain zuzen, ekonomia zirkularraren edota prebentzio dinamiken inguruko doktore-tesi bat burutzen dabiltza. Usurbilgo esperientziak, "kasu praktiko batekin lan egiteko aukera emango digu".

# Kaleragunea, iruditan





















txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

# 20. Korrika apirilaren 4an igaroko da Usurbildik eta gau partean izango da

Antolatzaileek ezagutzera eman dute, martxoaren 30ean Otxandion hasi eta apirilaren 9an Iruñean amaituko den 20. Korrikaren ibilbidea. Apirilaren 4an, asteartearekin, gaueko 23:39an helduko da Zubietatik barrena Usurbila.

Aginagatik gero, Oriorako bidea hartuko du. Gogoan izan, Korrikaren aldeko materiala salgai duzue Etumeta AEK euskaltegian. Korrika Laguntzaile ere bihurtu zaitezkete bertan. 12 euroren truke, Korrika Laguntzailearen pina, urtarriletik aurrera Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko dizun Korrika laguntzaile txartela eta txartela onartuko duten komertzioen zerrenda dakarren katalogoa jasoko duzue.

Informazio gehiago: www.korrika.eus



**Apirilaren 4a asteartea da. Zubietatik barrena iritsiko da Usurbilera, gaueko 23:39an.**

## 1964ko idi-dema NO-DO delakoan

RTVE-ren artxiboetan harribitxi hau topatu dugu: 60ko hamarkadan Usurbilen grabaturiko idi-dema. 1964ko abenduaren 28ko NO-DO albistegian eskaini zuten, zehatzago esanda. Egungo Ugaldea industria-gunea nekazal lurra zen orduan, frontoia estali gabe ageri zen, eta frontoi ingurua bera ere, guztiz ezberdina zen.

NO-DO (*Noticiarios y Documentales* izenburuaren akronimoa) film baten aurretik espainiar zinematan proiektatzen zuten albistegia izan zen. 1942 eta 1976 artean zinema aretoek derrigorrez proiektatu behar zuten NO-DO delakoa. 1981era arte, borondatez.




**Usurbilgo idi-dema bati buruzko ikusentzunezkoa 1964 urtekoa da.**

**Gure web-orrian ikusgai**

Youtube kanalean dugun orrialdean aurkituko duzue 1964ko idi-demaren inguruko bideoa.

## Kabiene egitasmoaz hizketan izan ginen Euskadi Irratian

NOAUA! aldizkarikoak Euskadi Irratian izan ginen urtarrilaren 2an astelehena, 'Mezularia' irratsaioan hain zuzen. Ainhoa Etxebeste esatariarekin batera, Antton Korta eta Julen Arteaga arkitektoak elkarrizketatu genituen. Kabiene freelance eta profesional autonomoen elkarteko kide dira biak eta, hain zuzen, Kabieneko esperientzia hartu genuen hizpide nagusi. Argazkiko Qr kodearen bitartez, elkarrizketa entzuteko aukera duzue.




**Antton Korta eta Julen Arteaga, EITBk Donostian duen egoitzan.**

## Komikien erakusketa

Azken hilabeteotan Joseba Larratxe herritarrak bideratu duen komikigintza tailerreko ikasleen lanak ikusgai jarri ditu ekimen honen antolakuntzak, Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak, Sutegi udal liburutegian. Urtarrilaren 14ra arte ikusgai izango dituzue, liburutegi atarian.



**Urtarrilaren 14an amaituko da erakusketa.**









# Zazpi talde batu ziren futbol topaketan



Pasaia K.E., Sanse, Urnieta K.E., Allerru, Orioko F.T., Baztan, Villabona eta Usurbil F.T. taldeak aritu ziren aurrez aurre.

Urtea gaztetxoen futbolarien topaketa ospatuz agurtu zuen Usurbil F.T.-k. Etxekoekin batera, Gipuzkoa eta Nafarroako 7 talde batu zituzten abenduaren 31ko hitzorduan: Pasaia K.E., Sanse, Urnieta K.E., Allerru, Orioko F.T., Baztan, Villabona eta Usurbil F.T. Oroigarri bana jaso zuten antolatzaileen eskutik, topaketa hasi aurretik.

**Bartzelonara bidaia**

Apirilaren 15-16ko asteburuan Realak Bartzelonan jokatuko duela baliatuta, neurketa hau ikusi eta hiriburua ezagutzeko bidaia antolatzen ari da Usurbil F.T. Bidaian izen emateko epea urtarrilaren 31ra arte luzatu dute. Apuntatzeko eta argibide gehiagorako: futusurbil@yahoo.es

**Gabonetako errifen zozketa**

"Zenbaki hauen jabe bazarete Haraneko tabernatik pasa", ohartarazi dute Usurbil F.T.-tik: Marije Arropa denda: 3743. Bruño Mariskoak: 3007. Saizar jatetxea: 5673.

## Brontzezko domina selekzioen arteko eskubaloi txapelketan

Brontzezko domina irabazi du jubenil nesken euskal selekzioak, asteburuan Blanesen jokatu duten selekzioen arteko eskubaloi txapelketan. Bi usurbildar ziren tartean; Ane Irazabal eta Estitxu Berasategi. Kadete mutilen mailan beste usurbildar bat lehiatu zen; Julen Nazabal. Kopatik txapelketara igotzea lortu eta zortzigarren postuan sailkatu ziren. Zorionak!



Ane Irazabal eta Estitxu Berasategik selekzioan hartu dute parte.

# Eskubaloian, Mirotzen omenez

Mirotzen omeneko infantilen arteko 9. Eskubaloi Txapelketa ospatu zen abenduaren 30ean Oiardo Kiroldegian. Euskal Herriko txoko ezberdinetako infantil neska-mutilen taldeak gondidatu zituen Usurbil Kirol Elkarteak. Amaieran sari mordoa banatu ere bai. Honatx jokatu ziren lagun arteko txapelketen sailkapenak eta sarituen berri:



Nesketan Basauri nagusitu zen eta mutiletan Usurbil.

## Sailkapena

**Infantil neskak**

1-Basauri, 2-Usurbil, 3-Anaitasuna, 4-Basauri, 5-Zarautz, 6-Tolosa.

**Infantil mutilak**

1-Usurbil, 2-Basauri, 3-Usurbil, 4-Anaitasuna, 5-Zarautz, 6-Tolosa

**Banakako sariak**

Jokalari mutil onena: Harri Bruño (Usurbil K.E.).
Jokalari neska onena: Ane Moreno.
Atezain neska onena: Uxue Cedrun.
Atezain mutil onena: Aimar Vicente.
Arbitro onenak: Manex eta Eneko usurbildarrak.

## Eskubaloi partidak Oiardo kiroldegian

**Urtarrilak 14, larunbata**

- 09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Udarregi 5A
- 09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Urnieta 6
- 10:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Urnieta
- 11:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi D Usurbil-Ordizia
- 13:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Amenabar E
- 15:45 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Astigarraga Gys Sport Elgoibar
- 17:30 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Tecnifuelle Elgoibar
- 19:30 Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usurbil K.E.-Lagunak.







# Andatzan hasi zuten urtea



Urtarrilaren 1ean, lagun asko igo ziren Andatzara. Argazkia: Jose Ramon Irazusta.

Urte berriarekin batera mendira joateko ohitura oso zabaldua dago. Urtarrilaren 1ean lagun asko ibili ziren Andatza partean.

**"Bidasoako kontrabandistak" ibilbideko lehen etapa**

2017an ohi baino goizago ekingo diote mendi irteerei Andatza M.K.T.-koek. Igande honetan bertan, urtarrilaren 15ean Bidasoa partean ibiliko dira. Izen emateko epea itxita duten arren, jakin dezazuen, "Bidasoako kontrabandistak" izeneko ibilbideko lehen etapa osatuko dute; Hendaia-Arritxulo artekoa. Goizeko 07:30ean finkatu dute biltzeko hitzordua Oiardo Kiroldegian, bertatik autobusez abiatzeko.

**Guztira, sei etapa**

Uztailera arte, ibilbide hau osatzeko beste sei etapa egingo dituzte.

# Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba, hilaren 29an

Hilaren 29an ospatuko den probarako izen ematea ireki dute. Honatx xehetasunak:

- Urtarrilak 29 igandea.
- Ordutegia: 08:30-13:30.
- Tokia: Mikel Laboa plaza-frontoia.
- Bi ibilbide aukeran: motza (26 km inguru); luzea (36km inguru).
- Izen ematea: urtarrilaren 27ra arte, kirolprobak.com atarian. Federatuek 15 euro; federatu gabeek 18 euro. Proba egunean bertan ere izen emateko aukera 08:45ak arte; 22 eurotan federatu zein federatu gabeentzat.
- Oharrak:

-Proban parte hartzeko gutxieneko adina: 15 urte.
-500 parte hartzaileentzako lekua.
-Ibilbidea aldatu daiteke, eguraldiaren baldintza eta mendiaren egoeraren arabera.
-Ibilbidean zehar, janari eta edari beroa, asistentzia.
-Proba amaieran, hamaiketakoa eta dozenaka opariren zozketa parte hartzaileen artean.
-Bizikletak garbitzeko mangerak anbulatorio ondoko aparkaleku ondoan. Dutxak Oiardon.
-Guztiz debekatua egongo da Oiardo Kiroldegian zikindutako oinetakoekin jantzita sartzea.

- Informazio gehiago: andatzamendizale.info irisasibtt@gmail.com



## Xuban Errazkin profesional mailan arituko da

Usurbildarra Radio Popular Boavista talde portugaldarraren hamaikakoan estreinatuko da maila profesionalean, hasi berri dugun urte honetan. Errazkinek Café Baque-Campos taldean parte hartu du zaletu gisa, eta pasa den udan zenbait lasterketetan Wilier Triestina-Southeast talde italiarrarekin. Volta a Portugal do Futuroko lehen etapa irabazi zuen eta lehen lidergoa promesentzako proban. Usurbildarrak abenduan Radio Popular Boavistak Paredesen (Oporto ondoan, Portugal) eginiko hiru eguneko kontzentrazioan parte hartu zuen. Kontratua sinatzeke zuen oraindik, baina agidanez, Jose Manuel Martins Dos Santos taldeko zuzendari teknikoak begi onez ikusi zuen bere erakustaldia. Zorionak Xuban!

## Futbola Haranen

**Urtarrilak 14, larunbata**

- 10:00 Alebin mutilak: Udarregi 5B-Udarregi 6B Udarregi 6A-Landaberri 5A
- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Sporting de Herrera
- 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Touring KE

**Urtarrilak 15, igandea**

- 10:00 Alebin mutilak 2006, topaketa: Usurbil F.T.,; Antiguoko A, B, D, E; Billabona.
- 11:45 Benjaminen arteko topaketa, 2007-2008: Usurbil F.T.-Mundaiz IK.










## ETXEBIZITZA

### Salgai

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 626 347 914

Usurbilgo udalak etxebizitza bat jartzen du enkantean. Gutxieneko lizitazioa: 106.323 euro. Informazio gehiagorako: 94 337 19 51 edo kontratazioa@usurbil.eus

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 eta 56) eta garajea 50m² eta terraza 9m². Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

### Alokairuan

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Pisu bat alokairuan Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna. Kapritxoz jarria. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile



**Zorionak Xuban!** Urtarrillaren 13an 6 urte handi! Ia jator jator portatzen zaren eta zure urtebetetze egunean ondo ondo pasatzen dugun denok elkarrekin. Muxu pilla maite zaitugun guztion partez!



**Zorionak Xune** urtarrilaren 8an bi urte bete zenituelako! Primeran pasa genuen! Muxu pila pila pila patata tortila!



**Zorionak Ayllen!!** Abenduaren 27an, 8 urte bete zenituen. Muxu asko asko aita, ama eta amona.



**Zorionak Antton!** Zure 60 urtebetetzeko festa ederrera gonbidatu zenigunez, mila esker!

**OHARRA:** 2017ko urtarrilaren 20an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urtarrilaren 16an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

## Heriotzak

**Miren Edurne Arrillaga Azkue**
80 urterekin hil zen
abenduaren 20an Usurbilen



**Roman Zulaika Illarramendi**
91 urterekin hil zen
abenduaren 20an Usurbilen



**Carmen Garmendia Alberdi**
94 urterekin hil zen
abenduaren 22an Usurbilen



**Alejandro Tapia Ayestaran**
86 urterekin hil zen
abenduaren 24an Aginagan



**Pedro Errasti Reparaz**
86 urterekin hil zen
abenduaren 31n Aginagan



tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

**BESTELAKOAK**

Lanpara bat topatu nuen Artzabal aldean, haizeak eramanda haize gogorreko egun batean. Zurea bada, deitu 675 712 383.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 1,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2 - 3 urteko ume batentzat. Arroxa. Tel. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higienerako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

3 plazako eta 2 plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Kutxabank | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Urtarrilak 12 - urtarrilak 22

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 12 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 13 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Larunbata** | 14 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Igandea** | 15 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Astelehena** | 16 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Asteartea** | 17 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Asteazkena** | 18 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Osteguna** | 19 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Ostirala** | 20 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Larunbata** | 21 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Igandea** | 22 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda urtarrila

## 14 larunbata

- **Sare-k Bilbon antolatu duen manifestaziora joateko autobusak.** 11:00etan lehena, Oiardotik abiatuta. Izen ematea: Aitzaga Elkartean eta Aitzaga tabernan. 15:30ean bigarren busa, Oiardotik hau ere. Izen ematea: Aitzaga, Bordatxo, Txiriboga eta Zendoia tabernetan.

## 15 igandea

- **"Bidasoako kontrabandistak" ibilbideko lehen etapa.** 07:30ean abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik. Aurretik eman behar zen izena.
- **Munduko janarien Tipi-Tapa.** 15:00ak arte Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirristra tabernetan.

## 16 astelehena

- **Odol-ematea. Arratsaldeko** 18:00etatik 20:30ak artean anbulatorioan.

# Igande honetan, munduko janarien Tipi-Tapa

Azken aldian azoka formatuan ospaturiko gune gastronomikoen ondoren, Tipi-Tapa eredua errepikatuko dute igande honetan, urtarrilaren 15ean. Aurreko denboraldietan bezala, Hurbilago Elkarteko tabernariek ibilbidetxo bat egiteko gonbita luzatzen digute.

Tipi-Tapa ibiliaz, pintxo gozoak dastatzeko aukera izango dugu igande honetan Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirristra tabernetan barrena.



**Pintxo festaren amaieran 150 euroko erosketa balea zozketatuko da.**

### Eguerditik, 15:00ak arte

Igande honetan, goizetik arratsaldeko 15:00ak arte. Kultura ezberdinetan barrena bidaiatu ahalko dugu gainera. Munduko jakiekin prestatuko dizkigute eta, zizka-mizka bereziok.

## Datorren astelehenean, odol-ematea

Bi hilean behin Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak finkatu ohi duen hitzordua, eguberriak tarteko, ohi baino beranduago dator oraingoan. Urtarrilaren 16an, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

## Urtarrilean KzGunea goizez egongo da zabalik

- Urtarrilak 16-27, 09:00-11:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".
- Urtarrilak 30-31, 09:00-11:00 "Eusko Jaurlaritza zure mugikorrean".
- Informazio gehiagorako: 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net

## Datozenak

### Sansebastian eguneko danbor hotsak, ate joka

Ohi bezala, Donostiako ospakizunei aurre hartuko diete ikastetxeek, hilaren 19an. Aldaketarik ez bada, honatx Udarregi Ikastolan ospatuko diren hitzorduak:

**Urtarrilak 19, osteguna**
**Udarregi Ikastolan:**

- 15:45 HH-koen danborrada saioa Agerialden. Eguraldi txarra egingo balu, Agerialdeko patioko aterpean.
- 16:10 LH-koen danborrada saioa Agerialdean. Eguraldi txarra egingo balu, Agerialdeko sarrerako frontoi txikietan.

Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

**Hurrengo ospakizunak:**

- Otsailak 4, larunbata: Santa Ageda bezpera.
- Otsailak 25, larunbata: Inauteri Festa. Mozorrotzeko proposatzen den gaia: Ingurumena.









**URTARRILAren 12an, osteguna, arratsaldeko 20:00tan**

SAIZAR

Sagardotegia

# Julen Lopetegui

entrenatzaileak,

# "Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!"

esanaz, 2017ko Txotx denboraldiari hasiera emango dio.

**Kepa Junkerak sortutako abestia "Sagarraren Danborrada", Usurbilgo herriari, Saizar Sagardoari eta Danborradari eginiko musika-eskaintza berezia aurkeztuko da.**




| | |
|---|---|
| Trikitilaria | **Kepa Junkera** |
| Dantzariak | **Sorginak** |
| Bertsolaria | **Andoni Egaña** |
| Aurkezlea | **Julian Iantzi** |

**Oharra:**

Soilik sarrera izango dute erreserbatutako mahaiek.

Kale-zahar, 39 · 20170 **USURBIL** (Gipuzkoa) · **943 373 995** · sidreria@sidrassaizar.com · **www.sidrassaizar.com**


URDAIRA
Sagardotegia
astelehenak itxita
Aginaga 943 37 26 91


OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, HERNANI


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


SAIZAR
Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak:
943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)
SAIZAR
Sagardotegia
www.sidrassaizar.com


SAGARDOTEGIA
aginaga
Hotela **
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
%100 bertako sagarra
AIALDE
BERRI
Tel: 943 365 031
Santuenea